

Manuel Arriandiaga: berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaieraren historiaz. IV)

ITZIAR LAKA
M. I. T.

ABSTRACT

It can be said, without fear of exaggeration, that Manuel Arriandiaga was one of the principal theorists and leaders of the purists who made up the so-called «School of Arana», particularly where verbal morphology was concerned.

We show here that Arriandiaga was Azkue's most faithful disciple, and the most fervent admirer of the latter's *Euskal Izkindea* (Basque Grammar), whose plans and ideas he attempted to take to their logical conclusions. So, whilst the author who gave his name to the «School of Arana» provided it with ideas and tendencies related to vocabulary and phonetics, it was rather Azkue's work which came to be the School's primary source in matters related to its central and characteristic field of verbal morphology.

We publish in the form of an appendix the letters written by Arriandiaga to Azkue, in which their disciple-master relationship, so evident in the former's writings, is especially marked.

0. Manuel Arriandiaga

Gutxitan aitortu zaio Manuel Arriandiagari, mende honen hasieratik literatur bizkaieraren bilakaeran izan zuen garrantzi erabatekoa; are gehiago, bere izena azken-lerroetan agertu ohi da XX. mendearen hasierako euskal-historian, epigonoen lekuan. Aranatarren eskolako jarraitzailea omen zen Arriandiaga; jarraitzailerik sutsuenetakoa, baina jarraitzailea azken batean, hots: bestek hasiari lotu, eta aurrera egiten dutenetakoa. Egun darabiltzagun eritzien arauera, Manuel Arriandiaga, Sabino Arana-Goirik esanikoei atxiki zitzaienetako bat genuke; *Irakasleak* pizturiko sua, bera hil ondoan azkortu zutenetakoa¹.

Alabaina, kontuak bestela ageri zaizkigu Arriandiaga eta bere aurre-

(1) Euskal literaturazko liburuei gainbegirada boteaz egiazta daitekeena da hau. Adibidez, eta hedatu den dabilen eritzi-tankeraren erakusgarri bezala: «Por sus trabajos se ve que seguía la línea sabiniana». Hala ere, ez dut uste dakigunik orandik orain, zer den zehazki «línea sabiniana» delako hori, eta zer den deitura horren barnean sartzen ditugun ezaugarrietatik Aranak eginikoa eta ondorengoek gehiturikoa bere izenean. Arriandiagaren eraginak eta itzalak, idazle abertzaleen inguru-marian, ezagutza sakonago bat eskatu beharko liguke, hain zuzen gugandik hain urrun ez dauden idazle eta euskalari hauek burutu zuten lana nondik norakoa izan genuen inoiz jakingo badugu, gutieneko zehaztasun batez. (Aipua, Villasante, 1979, 351.or.).

koen lana aztertzean. *Aranatarren eskola* aipatzean, hizkuntzaren alor guztiak ikutu zituen mugimendu garbizale batez mintzatzen gara: agian, batez ere hiztegiar arduratu zen idazle, euskalari eta euskaltzale talde jakinaz, baina ezin ukatu hauen kezka morfologia, joskera eta aditz mailan ere gauzatu zirenik. Aranak, ordea, ez zuen, Laka 1987a-n ikusi dugunez, lexikotik lekorako gairik ia jorratu, eta alor hauetan sartzean, berarenak diren eritzi eta proposamenak esku bakar bateko hatzamarrek kontu litzakete. Hitzberrien sortzeari dagokionez ere, bada tarterik Aranak hil ondoan utziriko neologismo kopurutik, handik zenbait urtetara bere izenean, edota bere izenaren itzalean, erabili zirenetara. Aranaren izenaz bete zen tarte hori; eta tartearen betetze horretan, Arriandiaga izan zen sortzailerik oparoena.

Aditz morfologiaren alorrean, ezer gutxi da Aranak utzirikoa; izan ere, Azkueren eredia jasotzen du, aipatu ditugun ikutu apurrak eginaz (cf. Laka 1987a § 2.16.3.1.). Nolanahi ere den, baina, abertzaleen inguruko eskola garbizaleak, aditz morfologiari buruzko lan eta iruzkin ugari eskeini zituen; lan hoietarik gehienak, eta bizkaierazko aditzari zuzen-zuzenean zegozkion guztiak, Arriandiagaren eskutik atereak ditugu. Esan genezake, bada, aditz morfologiari dagokionean bederen, Manuel Arriandiaga dela *Aranatarren eskola*ko buru.

Saio honetan erakutsi gogo genukeena, Arriandiagaren lanak *Izkindearekin* duen zorra da. Hiperbizkaieraren, eta are hipereuskararen mutur-muturreko teorikoa izan zen honek, *Izkindean* hartu zuen bere euskalari-bataioa, eta bataio honi loturik iraungo zuen bere lan oparo guztian zehar, amabitxi izan zuen gramatikaren izpiritu eta filosofiari sekula ukorik egin gabe; are Azkuek oihalak bildu eta literatur tradizioranzko itzul-bidaia egitera abiatu zen garaietan ere. *Izkindearen* lekukoa, bada, Arriandiagaren eskuek jaso zuten, eta bere bitartez, abertzaleen inguruko mugimendu garbizaleak, hots, *Aranatarren eskola* deitu ohi denak.

Izkindea eta Arriandiagaren aditzari buruzko lanen arteko loturari aise antzeman zekiokkeen erkaketa bat eginaz, baina antzekotasun honen zergatia ziurtasun osoz ezin zitekeen erabaki; Azkue eta bere arteko harremanik egon zela, Arriandiagaren lehen lan argitaratuak erakutsi lezake: «Iaungoikoaren izena iatorrizko izkeraan», *Euskaltzale*-n aterea (II, 31-32) 1898. urtean. Honek, hala ere, ez zigun harremanen zernolaketasun hori mugatzeko aukera zehatzik eskeintzen. Egun, zorionez, badugu Arriandiaga eta Azkueren arteko loturaz testigantza ziurragorik: batetik, Arriandiagak Azkueri bidalitako gutunak, argitaragabea zeutzanak Azkue liburutegian, eta bestetik, gutunekin batera, Arriandiagak aditzari buruz idatzirikoa lehen lana: *Euskal-aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi ta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa*. Eraskin gisa aurkezten ditugu hemen gutunak eta lanaren harian sarri aipatuko dugun aditzari buruzko eskuizkribua Laka 1987b-n argitaratzen da.

Izan ere, bai gutunek eta bai eskuizkribuak, ezin hobeki azaltzen

dute norainokoa den euskalari bien arteko zerikusia, eta norainokoa Arriandiagaren lanak Azkueren gramatikari dion atxikitasuna; azken batean, beraz, norainokoa *Euskal-Izkindeak* XX. mendeko eredu garbizalean izan zuen eragina. Aditz morfologiaren alorrean bederen, *Aranatarren eskolako* buru izan zenak, ez zuen Aranaren sua azkortu, Azkue gazteak *Izkindearekin* irazeki zuena baizik.

1. Arriandiaga eta R. M. Azkue

Azkue eta Arriandiagaren harremanek *Euskal-Izkindearen* bitartez izan zuten hasiera, 1896. urtean. Ordurako zenbait urtez Aldundiko Institutoan irakasle zenak, bere gramatikaren ale bat bidali zuen klaretiarrek Santo Domingo de la Calzadan zuten apaiztegira. Hantxe zegoen Manuel Arriandiaga bere ikasketak egiten, eta hilabete gutxiren buruan, gutun bat idatzi zion, bere eta bere zenbait ikaskideren izenean, oparia eskertuaz, eta bide batez zenbait gramatika-arazori buruzko galderak eginaz:

Irailgo lenengo egunetan Ikastegi onen euskaldunak artu geuan «Azkueko Resurreccion Maria abade Bizkaiko lenengo euskal-irakasleak eratu ta biurturiko *Euskal-Izkindea* (ik. Eraskina 1).

Gutuna urte bereko abenduan idatzirik dago, eta ordurako, biltzen ari garen pasarteetan nabari daitekeenez, Arriandiagaren idazkera erabat makurtzen zaio Azkueren gramatikaren ereduari; irakasleari zuzentzen zaizkion esker eta onesanak, atxikimendurik leialenaren erakusgarri dira:

On bada gure iaioterrian zorio-ongaitik pozik iganatuten gaizala. Ire Izkindea gaitik dontsututen dauagu biotz biotzetik' eta zeru ta lurreko do ta zori-on gustiak gura dauagu; ¡Jaungoikoak zerutik bere argiak emon beizk ire erriri aurrerantzean balioagoa izateko! (*ibid.*).

Lehenengo gutun honen ondoren, Arriandiagak bere izenean soilik jarraituko du Azkuerentzat gutunak idazten; bigarrena, erdaraz idatzirik dago; agian ez zelako oraindik euskaraz oso ongi moldatzen; bigarren honetan ere, eskerrak eta laudorioak zuzentzen dizkio bere irakasleari, eta berekiko zorrak agertzen:

Poniendo con nuestras oraciones el negocio y la obligación en tan generosas y agradecidas manos, creemos haber satisfecho á la obligación y deuda que con V. hemos contraído. Sin embargo de esto, no nos olvidaremos, en cuanto nos sea dado, de hacer lo que de nuestra parte podamos: estamos atados con V.; ¡Quiera el Señor que sepamos satisfacer á tales ataduras! (Eraskina 3).

Azkuek ere, dirudienez, eskerronez erantzun zion bere ikaslerik atxikienaren miresteari, *Euskalzale* aldizkariaren aleak bidaliz, eta baita *El Euskara ó el Bascuence en 120 lecciones* liburua ere, Arriandiagak 1897.eko Uztailan idatziriko gutunean eskertzen bait dizkio. Gutun berarekin batera, bere aditzari buruzko lana ere eskeintzen dio:

Prueba de que no son inútiles en nosotros sus trabajos será el adjunto «Euskal-aditza Bizkai Gipuzko Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa». Al enviarle este mi insignificante trabajo, no es mi ánimo alzarme antes de tiempo en maestro, pero reconozco mi impertinencia é ignorancia y que habré incurrido en muchos defectos; sino manifestarle con alguna obra de nuestra gratitud y darle cierto consuelo al ver que no descuidamos nuestra lengua madre, sino que la estudiamos con tesón para poder algún día ser útiles al Señor en el país bascongado. (Eraskina 5).

Arriandiaga, diotenez, ikasle azkarra zen²; euskal gaietan bederen, azkartasunik ezin zaio ukatu: *Izkindea* jaso zuenean, 20 urte zituen, eta bere lehen lan hau 21 urtetarako buruturik zuen. Azkuek, alabaina, ez zuen erantzunik bidali; hurrengo gutuna, 1898.ekoa dugu, eta bertan, Arriandiagak lanean diharduela diotso bere irakasle miretsiari:

En el verano pasado envié á V. mi cuaderno sobre el verbo éuskaro. Mi fin era agradecerle de algún modo los favores que V. nos dispensa y ponerlo á su disposición, si para algo podía servirle. En atención á sus muchas ocupaciones, no puede V. enterarse de él hasta su viaje á Francia, como me los certificó el Sr. Administrador: siento haberle molestado en sus muchas ocupaciones: fué no más que un desahogo a mi corazón y un testimonio de nuestra gratitud. No me ha sido posible concluir los dos apéndices que á dicho cuaderno corresponden, pues el estudio simultáneo de la Teología Moral, Derecho y Escritura con las demás observancias que como á religioso me obligan, apenas me dejan tiempo disponible. (Eraskina 6).

Honezaz gain, Arriandiagak artikuluska bat eskeintzen dio Azkue-ri, etimologia lan bat, bere lehen argitaratua izango dena; Azkuek, *Euskalzale* aldizkarian eman zuen urte berean.

Hoy, deseando darle una prueba más de nuestro reconocimiento, me tomo la libertad, aunque sea abusando de su bondad con nosotros, de enviarle el adjunto estudio sobre el nombre primitivo de Dios en nuestra lengua. A su disposición lo pongo para que V. haga de él lo que mejor le parezca. (*Ibid.*).

Geroztik, Arriandiaga eta Azkueren arteko harremanek eten luzea ezagutu zutela dirudi; gutunik behintzat, ez da gordetzen 1902. urte-rarte. Lau urteko tarte honetan, asko aldatu da Arriandiagaren bidea; bere lehen irakasle izan zenarena utzirik, euskara eredia aldatzen du; Arana-Goiriren itzalpean dakusagu orain:

Eztakit, jauna, zeuk oi dozun ala ez iñoren alde zeure bitaftekotasuna afitetu: oi badozu, edo beintzat nire anayaren zorigaiztuaz efuki ixanik, gu lagundu ta Jaungoikuaren mat'etasunagatik eta bitafteko bage dagozanen alde zer-edo-zer, zuzentasuna euren alde dago-ta, egingo

(2) Honela dio Villasantek: «Ordenado sacerdote, fue enviado a Roma a especializarse en estudios de derecho. En el decenio 1903-1913 regentó la cátedra de Teología Moral en el Estudio claretiano de Santo Domingo de la Calzada (Logroño). Después ocupó los cargos más altos de la Congregación, incluso el de secretario general de ésta. Por razón de estos cargos residió en Madrid y en Roma muchos años. Murió en Beire (Navarra). La moral y el derecho fueron los estudios en que más se distinguió. En latín y castellano publicó diversos escritos de tipo moral y canónico». (VILLASANTE, 1979, 351.or.).

bazeuke, badakixu zeuk Jaungoikuak ugari sarituko leukezula osetan edo zerubetan eta gure afenak zeure alde betiko ixango dozuzala, niriak baña ta nire meza-gomutak antxiñagotik ta egunian egunian dozuz baña. (Eraskina 8).

Azken gutun hau, Erromatik bidalia dugu; Arriandiagak bere lege-ikasketak han burutu zituen, hiru urtez. Osorik irakurtzean, argi nabari daiteke gizon bien artean zegoen lotura estua, asko lasaiturik zebilela garai hauetan, edo, hobe esan agian, Arriandiagaren mireste sutsua apaltzen hasia zela ordurako. Izan ere, eskutitz honek ez zuen bien arteko harreman berririk piztu: osterera ere, Azkue eta Arriandiaga nor bere bidetik abiatuko dira. Lehena, bere hiztegi-lanen bitartez, *Izkindean* urratu-rik garbizaletasuna, bere hitzetan «txukuneria», gero eta gehiago baztertuz (gogora Laka 1986b-n esandakoak; batik bat § 0.2. eta 7 eta 10. oh.); bigarrena, aitzitik, gazte denboretako ahalegin berrituratzaileak areagotzen arituz.

Arriandiagak Azkueri bidaliko zion azken gutuna, ez da jada ikasleak irakasleari zuzendurikoa, baizik kideen artekoa. 1916. urtekoa da; Azkue bere *Diccionario español y vasco* prestatzen ari zelarik³. Hiztegi honek zatika ikusi zuen argia, eta ez zuen inoiz burutzerik izan; lehenengo atala kaleratzean, Arriandiagak lekeitiarraren gutun batekin batera jaso zuen. Gutunean, hiztegi-arazoez dihardu Arriandiagak, bai bere irakasle-ohiaren zenbait galderari erantzunez, eta baita hiztegiari buruzko iruzkinak azaltzeko. Iruzkinok, noski, Aranaren lege fonetikoaren arauerakoak ditugu:

Ez ete-litzake obeto *tresna, kristau* ta onetariko abotsen onduan *tesna, kistau* idaztea, aboskereari zof yakana aintzat afitubaz? Gustijok daki-gu f eztala euzkeraz bidezkoa: *br, bl, tr, kr*, eta eztirala bidezkuak. (LAKA 1987b, 20-21.or.).

Geroztik, ez omen zioten elkarri idatzi euskalzale biok. Arriandiaga eskola garbizalearen buruetarik zen, eta Azkue gero eta jazarriagoa agertzen zitzaion eskola honi; izan ere, hasieran bere ikaslerik zale-tuena zen hura agertuko zitzaion, urteen buruan, nolabait aurkakoa zuen taldearen buru.

Arriandiagaz arduratzean, bere lehen lanek, bere lehen urteetako eritzi eta joerek gerora ere utzi zioten zantzua bilatu eta zehaztu nahi izan dugu gehien bat. Hortaz, ez da inolaz ere Arriandiagaren obra guztia kontuan izan duguna; bere tamainak, lan bakar bat eskeintzera behartuko gintuzke. Arriandiagaren hasiera, abiapuntua da aukeratu duguna, hain zuzen ere hiperbizkaieraren hastapenak ulertzeko ezin bestean agertzen zaigulako Arriandiagaren izena aztergai.

Ondoren, beraz, bi aldetatik aztertuko dugu *Izkindeak* garbizale amorratu honen lanean izan zuen garrantzia: lehenik, bere eskuizkri-

(3) Orduko, Arriandiaga euskalaririk miretsienetako bat zen garbizaleen artean; *Euzkadi* eta *Jel* aldizkarietan hainbat eta hainbat artikuluko zituen argitaraturik, eta baita jarraitzaile aldra bat bere atzean. Aipatu dugun hiztegia: *Diccionario español y vasco*. Bilbao: 1910.

buak, *Euskal-aditza Bizkai Gipuzko Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa*-k Azkueren lehen gramatikarekin duen atxikitasuna erakutsiko dugu, eta baita, *Izkindearen* eredutik abiatuaz bada ere, Arriandiagarenak berarenak diren eritzi eta ondorioak. Bigarrenik, eskuizkribu honek Arriandiagaren heldutasun lanekin, argitaratu zituenekin duen zerikusia garandu asmo dugu. Ikusiko denez, Arriandiagaren lana ezin azal daiteke *Izkindea* gabe.

2. Euskal-aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa

Euskal-Izkindeak, bere aditzaren eraberritzea aurkeztean hitz hauekin egiten du sarrera:

Nire lana Bizkaiko izkerantza garbitutea izango dai, eta ez buruzkoa bakarrik: diartean bertan' erdi-zatituta batzuk' osorik geienak' aurkituko dautaz euskara garbiari dagokiozan gaiak. Eraz irakatsiko daiz. Bezte izkerantzak bere' bat ondo garbituez gero' erraz garbitu leikez. (AZKUE 1891, 178.or.).

Arriandiagak oso kontuan hartu zituen hitz hauek, eta berak ekin zion, hain zuzen ere Azkuek itxuratutako egitamuari, hots: euskalki guztietako aditza garbitze lanari. Bere izkribuaren izenburuak azaltzen du, argi eta garbi, «garbituriko» aditzaz arituko dela, eta *Aurre-itzan* irakur dezakegu berriz ere, *captatio benevolentiae* baten itxuran:

On emen bada' Azkuetarren Euskal-Izkindean Bizkaiko aditzan garbitasuna ikusi neuanetik, bezte izkerantzeko aditzan garbitasunarako iaio itzakitan asmoa. Aitaturiko bada euskal-izkindari agurgarrian ikasmenai narraikiela' euskal-lantso au artu daut. Ene ezaumen laburrak eta bideen naikogetasunak (begien aurrean euskal-izkiratu daukatzan guztiak «Azkueko R. Marian Euskal-Izkindea», «Campionena», «Mogeltarren Maiatz-ilerako loreen berbaldia» eta «kristinauan ikasbide batzuk daiz) eznaue lan osoa ta guztiz amaiturikoa sortuten it̄siko. Arazo onelangoa artuta bada' ni baino ezaumen zabalagoa ta atzenki ego kiagoak daukazanari bidea erraztuten baino ezneuan bilatuten. Nire zorionen andia euskaldun bat edo batek' lan onen bidez' Euskara miragarrian ekarri egokia sortuko baleu! (7.1)⁴.

Arriandiagak darabilen euskara ereduak zalantzarik gabe erakusten digu norainokoa den lan honek *Izkindeari* dion zorra; gramatika hortako hipotesiak oinarri harturik abiatuko da Arriandiaga euskal aditza oso osorik garbitzera. *Izkindea* baino haratago doan bide horretan, ikusiko dugunez, bere bereak diren zenbait eritzi kaleratuko ditu, zenbaitetan *Izkindean* esandakoekin bateratsuegi ez datozenak:

Ezdaut esan gura Azkuetarren ikasmen guztiak oso ziurrak daizala ta begi it̄suez berai iarraitu bear gakiezala; berak bere ikasmen asko eritsien izenaz dakarskuz. Temaz ostetu' au dai egin bear ezdauena

(4) Eskuizkribuko pasarteak, orijinalean eta LAKA 1987b-n daraman zenbaketat azpazten ditugu, kako artean. Lehenik, orrialdearen zenbakia, eta hurrengo, dagokion atala. Honela, (7.1) jartzean adierazi nahi da delako aipua 7. orrialdetik atereia dela, 1 zenbakia daraman pasartetik.

euskaldunak' ez gizon bat ez batek; ikasmenak baina astertuteko eskubidea guztiok daukagu adimena daukagun aldetik; baina adimena ezdaukagu egia naibagetuteko' bai egian t̄sinpar argitsuai zabalduetea. Nik bere, nire adin labur eta izkindari lekeitiarganako lotsa ta begirakunean gora-bera, uste batzuk aren kontra agertuko dautaz, ez naibageko asmoaz' bai egian maite-izateaz. Esan daut eta osteratu bear daut; Euskeraa andia dai' egiazkoa dainean: ezdauelako egi ezagun' urrundu daue askok. (10.8).

Aditzaren definizio eta sailkapenari dagokienez, Arriandiagaren izkribuak hitzez hitz biltzen du *Izkindearen* ondarea: bai definizioa, Azkueren hitzak errepikatzen dituena, baita *euskoi* / *biralkoi* arteko banaketa ere (ikus eskuizk. 13.or.), Arriandiagak maisuaren irakaspenen laburbiltzea baino besterik ez du egiten. Halarik ere, lantzean behin, ikutuak ezartzen ditu.

Azkueren esanetan; ikutu hoiek, oro har, garbizaletasunaren, edo hobe esan erregulartasunaren eta lojikotasunaren areagotzea izan ohi dira. Izkribuan aurki genezakeen lehena, *izan* aditzaren bidez eratoritzen diren aditzei dagokie; *Izkindeaz* aritzean (cf. Laka 1986b) ikusi genuenez, «*Grinaak, sentzukizunak* eta *gizonan bezte barrukotasunak*, baldin onek beti kanporatu ezik» adierazten dituzten hitzek hartu beharko lukete *izan* aditza sortzeko; adibidetzat ematen dizkigu: *Al izan, ari izan, bizi izan...* Arriandiagak, lege hau ezarriz, *aditu* eta *ulertu, beldurtu, aserretu* aditzak gaitzesiko ditu:

Nik bada' *aditu*-ren ordez' *adin izan* oituko daut, *ulertu* esan-bearrean *uler-izan, maitetu*-n ordez *maite izan, bildurtu*-n ordez *bildur izan, aserretu*-n ordez *aserre-izan*.—Toki askotan diarteak berak oituten dauzanez. Euskaraa gizako izkeraa dai; euskaraa maite badaugu' esakera galduek eta bere erraietan guganaino eldurikoak biztuten lan egin daigun: onelan gaurko euskaraari iatorrizko anditasuna biurtuko daik. (16.17).

Era berean, Arriandiagak Azkueren sisteman egiten duen bigarren ikutua, *Izkindearen* lege eta printzipioak bere egileak baino hertsikiago eta zehazkiago ezartzetik dator; *Izkindearen* 156. orrialdean, aditz trinko edo *irabiagaien* zerrenda bat eskeintzen du Azkuek, Arriandiagak 17. orrian biltzen duena. Ondoren, Azkuek berak aditz trinkoak trinko ez direnetatik bereizteko eratzen duen hipotesia azken mugaraino eramana, Arriandiagak (*Izkindearen* legeak hutsik gabe ezarriz), ondorio hau ateratzen du:

Erreskada onetan ikusi daike *al izan* aditz irabiagarritzat: onelan Azkuek: ene ustez' baina' *al izan* ezdai irabiagarria.

Lenengo argimena. Aditz irabiagarriak daiz aditz sortuak; *al izan'* barriz' ezdai berez sortua, eratorria dai: *Izan* aditzaz aditzu daiketzala uste batzuk lendik badazaugu: onelango usteak *izan*-ez adiztuten daiz' aidako usteak' *izan* lagunaz, berez ezin daue-ta, agertuarren. *Al-izan*-en irabiamena dai bada: *Al daut, biralkoia; al nai* euskoia; *al izaten daut* edo *al izaten nai*, ekanduzko ustea. *Al izan* bada' ezdai irabiagarria.

Daiket, daikek... ta naike, aike... ataltsoak' bere Azkuetarren ustez' aditz irabiaan aldamen bat dai. Aldamen au gero ikasiko daugu, eta zelan eratuten daila dakigunean' aldamena daila' ez aditz irabiagarria ezagutuko daugu. (17.21).

Ez da orain gure asmoa Arriandiagaren eskuizkribua eta *Izkindearen* erkaketa azken zehaztasuneraino hustutzea, baina uste dugu adibideok gutxi-gora-beherako ideia bat eman dezaketela lan bien artean dagoen lotura eta aldeaz (lotura delarik nagusi, noski). Bestalde, gure xedea ez litzateke hemen, eskuizkribuaren deskribatze oso eta betea eskeintzea, lan hori gerorako uzten bait dugu; aldiz, eskuizkribu honek hiperbizkaieraren bilakaeraz ematen digun argitasuna bildu gogo genuke beste ezer baino gehiago.

Esanenez, Arriandiagaren eskuizkribua *Izkindearen* aditzari buruzko eritzi eta hipotesien laburbiltze xumea dela bere lehenengo zatian, hau da, laugarren kapitulu hasi arteraino (Vⁿ BURUKIDAA, 26. or.). Kapitulu honetatik aurrera hasten da Arriandiagarena berarena den lana, hots: euskalki guztien aditzaren «garbiketa». Zehazkiago, 29. orrialdean ematen dio hasiera bere egitasmoari, *Izkindeak* egiten duenaren antzeko printzipio aldarrikatze honen bitartez:

Euskara sakon ta miragarrian gauza asko zailak badagoz' ikasmen au diarteko euskaraan zailena dai. On bada' euskal aditza garbitu gura badaugu eta aurrerantzean' ezdakigula nastu ta usteldu' astermen onen peremina. Zailtasunan gora-bera Iaungoikoan laguntzasunaz' balio au Euskal-Erri lastanari presta gura dausat. (29.59).

Arriandiagak proposatzen duen aditz-erabide berria, zenbait puntu nagusiren inguruan itxuratzen da, baina bi dira bereziki, bere proposamenen muinak: Lehena, aditzaren pluralgilearen bateratzea; bigarrena, aditz erroarena.

2.1. *Aditzaren pluralgilearen bateratzea*

Puntu honi dagokionez, Arriandiagaren jokabidea ondoko hau dugu: lehenik, euskalkietan aurkitzen dituen plural-markak aztertuko ditu; ondoren, euskalki bakoitzari marka bakar bat ezartzen, bere azterketaren ondorioz antzematen dien jatortasun frogen arauera.

Bizkaiko euskalkiaren kasuan, ez du oztoporik aurkituko; bere irakasleak egin du lan hori, aitortzen digun bezala:

Bizkai-izkerantzetik asi daigun, Izkerantz onen adizki-diakogina astertutea ezdai nire lana; astertuta dago Azkuetarren *Euskal-Izkindean*, 191-garren orrialdean, 560-garren esaldian; poz bada izango nai z daila orrelango diakogina esateaz. (29.61).

Beraz, Azkuek bizkaierarekin eginikoa gainerako euskalkietan erabakitzera igarotzen zaigu, besterik gabe, Arriandiaga gaztea: Gipuzkerari dagokionez, zenbait aditz-formari begirada arina bota ondoren, hau da ateratzen duen ondorioa:

Giputz-aditzeko adizki-diakoginean araua aterateko ordua io dai; esanikoetatik ondo zimenduta irudituko dai arautsoa: «aditz irabiagarrietan' baita bere laguntzailean atal artzailedunetan Giputz-izkerantzak *zki*-z adizki-diakotasuna iragarteko dau; laguntzaileko atal artzailegeetan barriz' *it*-en bidez. (31.66).

Zuberera da Arriandiagak aztergai hartzen duen hurrengo euskalkia; datuak, berak esan bezala, Campionen gramatikatik jaso ditu. Oraingoan, ez du uste *it* marka dagokionik euskalki honi plural marka adierazteko (32.68); zubererak marka bakar bat luke, bizkaieraren antzo; marka hau *tz* litzateke.

Zubere-aditz garbian diakogina ondo oitutearren' ona arautsoa. Zubere adizki-diakogina dai *tz*: laguntzailea *za* gunaz irabiateko balitz' aurretik ezarri bear dakia gunari; *i* gunaz' baita bere bezte aditz irabiagarriez' *tz* artetuten dakia gunari: aots itši aurrean' *z*-n biurtu doa; *tz*+*tz* edo *z*, sortu doa *tz*. (33.70).

Lapurterak sortzen dizkio Arriandiaga euskalari-berriari arazo larrienak, pluralgilea arautzeko garaian; bere erabakia, behin behinekoztat baizik ezin ager dezake:

Au gora-bera eznaiz poz ikasmen onez: zietzagoak ikusi-aurrean' arautso au Lapurdi izkerantzean oituko daut: *it* atal artzailegeetan, *zki* baina artzailedunetan; Euskaldun bat edo batek' euskalzale zintzoak' lan au bide egokiagoz bere amaira eroango aldau! (34.73).

Laburbilduz, bada, hauexek dira Arriandiagak ateratako erabakiak aditzaren objetu-pluralgileari dagokionez: Bizkaieraz, *z* litzateke marka hau, ez besterik; gipuzkeraz, bai aditz trinkoetan eta bai NNN jokoan, *zki*, eta NN jokoan *it*; zubereraz *tz* genuke objetuaren pluraltasunaren adierazlea, zeina zenbait ingurunetan *z* bilakatzen bait da (ikus 32.68-69); azkenik, lapurteraz, gipuzkeraz bezalakoxea litzateke marka hau, hots: *it* NN jokoan, eta *zki* NNN atalean.

2.2. Aditz erroak

Izkindearen prozedura bera erabiliz, Arriandiagak ere *aditz gunak* hartzen ditu bere berrituraketaren ardatz nagusitzat. Aditz trinkoen erroak zeintzu diren erabakitzeari eskeintzen dizkio lanaren atal honetako lehen pasarteak (35.75tik 43.88raino); oraingo honetan ez gara gai honen azterketan abiatuko; aitzitik, aditz laguntzailearen erroari dagozkienetara mugatuko gara, lan guztian zehar egin dugun bezala. Bestalde, aurrerago ikusiko dugunez, Arriandiagak eskuizkribu honetan ezartzen dituen eritzi eta erabakiek itxuratuko dute bere ondorengo lanen ibilbidea aditz laguntzailearen eraberritzean. Bizkitartean, aditz trinkoei buruzkoak aldatu egingo zituen denborarekin.

Arriandiagak, Azkuek bezala, *izan* aditza dauka laguntzaile guztia-
ren errotzat; alabaina, bere ustez *izan*-en erroak ez lirateke *ou*, *eu* eta *ai ei*, *Izkindean* ageri den bezala (ik. Laka 1986b §.2.4.3). Errook bi li-

rateke soilik: *u* aditz transitiboetarako eta *i* intrantsitiboetan; *a* eta *e* lotura hitzak genituzke, orain aldia eta iragana adieraziko luketenak:

Izan.—Laguntzailean gunan arautasuna agiria daila uste daut. Lenengotan baina *u* ta *i*-n iatorria astertu gura daut *a* ta *e* aots edegi lokarrien erakai ta arautasuna aurkitutearren. (44.89).

Euskalari gaztearen eritzian, bi aukera leudeke *u* erroaren jatorria azaltzeko: lehena, *za* errotik eratorria izatea, *za* > *ro* > *o* > *u* bila-kaera baten bitartez (44.89); bigarrena, eta honen alde ageri da bere ustea, *u* *i* errotik eratorria izatea litzateke (45.90). Azkenik, *i* erroa bera ere, *za* errotik eratorririkoa genuke, §.46.93.ean azaltzen denez.

Ondoren, eta euskalkiz euskalkiko azterketa arin bat eginaz, Arriandiagak aditz laguntzaileari buruz atera dituen ondorioak laburbiltzen dizkigu, hain zuzen ere, berak «garbituriko» aditza erabiltzen hasten den unean bertan. Aditz laguntzailearen erroa, bada, *za* litzateke:

Orain bada irakurlean baimenaz eskubide bat artu bear dazat. Argitu ta dagonez' *za* guna daza egiazko gun garbia ta iatorrizkoa; zenendik aurrera bada' ezaldaza nire eskubidean egongo, orain arte irabiamen erdi-garbia oitu dazatanez, aurrerantzean iatorrizko irabiamena oituteko? Ezbaleza inork asiko' ezgenzakez inoiz euskaraan antšinako anditasuna ta edertasuna geuganduko. (51.105).

Arriandiagak beste goragoko maila bat ezarri du Azkueren egitamu garbizalean; alde batetik, bizi den euskaragandik abiaturiko garbitze-egitama legoke, eta bestetik, bigarren urrats batean, euskararen sorburura, jaiotze-unera iritsi beharko lukeen garbitze lana. Arriandiagak burutu gogo duena, esan gabe doa, azken hau dugu.

U ta *i*-n iatorria agertuta gero' laguntzailean gun garbiak zeindutera goazan. Lan onez esanak geiago sendotuko daiz. Asi orduko' euskal-aditz garbi bikoitza erabagiko daut. Euskal-aditza garbitu gura badaugu' lenengotan gaurko irabiamena garbitu daikegu: onetarako' diarte-irabiamendik ugarikeriak (elementos superfluos) atera ta urrindu, ta diarteak oituagoak daukazan gun ta bezte irabiagaiak euki.

Bigarren aditz garbia dai euskal-iatorrizko gunak ta bezte irabiagaiak zeindutea onelan iatorrizko irabiamena eratu daike. Lenengo garbitasuna bigarrenerako bidea edo atzenkia izan bear dai: augaitik' euskaraan biztueraa igitu ta gugandu gura badaugu' bigarrena bide egokiez argitaratu ta oitu bear daugu. (46.95).

Bere irakasle Azkuek *Izkindean* buruturikoa, Arriandiagaren ustez, bada, erdi-garbitze bat besterik ez litzateke; 51. orrialdetik aurrera, beraz, erabat garbituriko aditza erabiliko digu klaretiarrak.

Objetuaren pluralgileak eta aditz laguntzailearen erroa zeintzu diren erabaki ondotik, aditz-jokoan parte hartzen duten gainerako atalak, banan banan aztertzeraz igarotzen da Arriandiaga. Aditza osorik garbitzeko aurkezten dituen beste proposamen batzu ditugu, adibidez, bizkaierazko NNN jokoan ageri den *ts* marga (*deutsat...*), gainerako euskalki gutzietan ohitzea, *inotsi*, *irautsi* eta antzeko aditzetan agertzen

dela bere jatortasun frogatzat erabiliz (53.111). Oro har, hala ere, eta aipatu ditugun alde nagusiak salbu, eskuizkribuak *Izkindearen* bidea jarraikitzeari ekiten dio. Honela, *nori* marka adierazten duten atalak aztertzen ditu, eta hemen, Azkuek erabiltzen dituen *dakio* eta *dakioe* (hots, *zaio* eta *zaie*, edo bizkaieraz *jako* eta *jake*), berak *dakia* eta *dakie* erabiliko dituela erabakitzen du (52.109). Hemendik aurrera, lotura arazoak hartzen ditu gai, eta ondoren zenbait aditz paradigma eskeintzen, bere berrituraketaren arauera (64-70.or.). Eskuizkribuaren azken atala hitanoari dagokio; *Izkindearen* irakaspenei jarraiki, Arriandiaga ere, *zu* izenordainari bere aintzinako esangura bihurtzearen alde azaltzen da, eta hitanoaren balio bereziak azpimarratzen dizkigu (84.or. eta hur.).

Honenbestez, itxuraturik leudeke Arriandiagaren lehen lan honen nondik-norako nagusiak, hots: batetik, Azkueren *Euskal-Izkindeareki*-ko duen ezin ukatuzko zorra, nolana ere Arriandiagak bere maisuari bidalitako gutunek argiagotzen dutena; bestetik, lekeitiarraren irakasmenetatik zer den Arriandiagak aldatu edo areagotzen duena. Azken atal honek, ikusiko dugunez, lehenak bezainbateko garrantzia du hiperbizkaieraren garapenean, zeren, urteen buruan, eritzi berak mantentzen agertuko zaigu Arriandiaga, *Euzkadiko* orrialdeetan. Azkueren gaztaro-ko sen hura, bada, abertzaleen arteko eskolarik garbizaleenetara igaroko zen.

3. «Notas sobre el verbo euzkérico» eta «La reforma de la Conjugación Euzkérica»

Manuel Arriandiagak aditzari buruz idatzi zituen lanen artean aukeratu ditugun hauek dira garrantzizkoenak, bertan aurki bait daitezke elkaturik, ondoko artikuluetan aipatu edo landuko dituen gai guztiak. Esanda dagoen bezala, ez da gure oraingo xedeetan sartzen Arriandiagaren gramatika lanen goitik-beherako azterketa zehatzari ekitea; aitzitik, lan hoietan ageri diren puntu nagusien iturriak zeintzu diren erakustea litzateke soilik gure helburua.

Mibisusek (hau izan zen berak gehien erabilitako ezizena) euskal aditzari buruz plazaratu zituen eritzi eta proposamenik gehienez, ondoren ikusiko dugunez, bere gaztaroan idatziriko lehen lan hartan dute beren sorburua, hots, *Euskal-aditza Bizkaia, Gipuzko, Lapurdi eta Zubero*ko *izkerantzetan garbiturikoa* izeneko eskuizkribuan, eta honen bitartez, Azkueren *Euskal-Izkindean*. Arriandiaga izan genuen *aranatarren* eskolaren egituratzaile nagusienetako bat; bere hitza, maisuaren hitza zen. Bere irakaspeneak eratu zuten, aditz morfologiari dagokionean bederen, eskola honen pentsamoldea, zenbaitetan Arana-Goiri beraren eritziak alde batera utzirik ere; honelakorik egiten zenean, baina, eman du nolabait estali edo zomorropean legez izkutatzen dela nondik datorren aukeratzen den proposamena. Azken batean —eta hau aranatarren eskolan jokabide orokorra dela begitantzen zaigu—, Aranaren

izenean defendatuko dira zenbaitetan Aranarenak ez ziren eritziak, eta alderantziz, bere izena aipatzeko baztertuko dira bestetan bere esanak, *Irakasleak* sekula esan izan ez balitu bezala. Honela, hizkuntzari dago-kionean behintzat, esan liteke, gure ustez, bi kontu direla Aranaren lana eta *aranatarren eskolarena*. Azkenak, hiztegi eta ortografia arazoetan soilik bildu zuen bera Irakaslearen ondarea, baina, morfologia eta baita joskera arazoetan, garbizaletasunak jarraitu zuen bidea ez zuen inolaz ere abandonatzen urratu, baizik, haziaren ereitean bederen, Azkuek. Azkenburuan, Laka 1986b-n erakusten saiatu garenez, itzal bakar bat nagusitzen da XX. mendearen hasierako bizkaieraren bilakaeran (eta baita, honen bete-betean ez bada ere, gipuzkeran): Astarloa durangarra-rena, bai hitzgintzaren alorrean, Arana-Goirik jaso zuelarik inork baino areago soinuen berezko esanguraren teoria, eta baita aditz morfologian, Azkueren *Izkindearen* eskutik. Ildo bi hauek Arriandiagaren lanean bil-tzen dira eta, ondorioz, eskola edo talde garbizalean.

Arriandiagak argitaraturiko lehen lana euskal aditzaz, «Notas sobre el verbo euzkérico» dugu. Sarrera hitzetan esaten zaigunez, lehenago eginiko saio batean oinarriturikoa dugu hau.

Al publicar las presentes *notas sobre el verbo euzkérico*, no intento hacer un tratado perfecto sobre el verbo euzkérico: es este inmensamente grande, y mis fuerzas son muy chicas: no reúno condiciones para ello. Es mi objeto apuntar algunas ideas que en el estudio y análisis, que del verbo euzkérico hice años atrás, me ocurrieron, para que otros, dotados de mejores condiciones intelectuales y de medios más abundantes de los que yo puedo disponer juzguen de cuanto dijere, y si lo encuentran probable ó verdadero, lo aprueben y autoricen, y si, por el contrario, lo hallan improbable y falso, lo reprueben y desautoricen, y si no les merece la atención, le dejen estar para que mis necedades se pudran en el olvido. (ARRIANDIAGA 1907, 60).

Aurreko lanaren izena aipatzen ez digun arren, artikulua honek eta *Euskal-aditza...* eskuizkribuak duten elkarren arteko lotura begi-bis-takoa da, ikusiko dugun legez. Jarraitu baino lehen, aitzitik, ohar be-di pasarte honek eta aurrerago jaso dugun eskuizkribuko atari-hitzek duten antzekotasuna. Goikoaren hurrengo, Arriandiagak aditzaren de-finizioa eskeintzen digu, honez gero nahikoa ezagun egiten zaigun de-finizioa, izan ere:

Entre las muchas definiciones que del verbo se han dado y las muchas más que pueden darse, elijo la siguiente: verbo es aquella parte de la oración que significa la existencia de las cosas.

Todos los seres criados tienen esencia y existencia, ser y existir: el ser es manifestado por el nombre; la existencia por el verbo. El existir de los seres criados, y por ende mudables, es el fundamento del tiempo; por ésto la primera función del verbo es la expresión del tiempo por medio de la conjugación. (*Ibid.*).

Izkindeari eskeini genion saioan 2.1.2. eta 2.3.1. ataletan ageri di-

ren definizioetara bihurtzea nahikoa dugu, besterik gabe, artikulua honen sorburua zein den asmatzeko. Baina antzekotasunak haratago doaz; aditaz egiten den sailkapena, adibidez:

El verbo es sustantivo ó adjetivo: aquél manifiesta la simple existencia; éste la existencia cualificada. Es sustantivo el verbo *ixan*=ser; son adjetivos los demás, como *efe*=quemar, *zuritu*=blanquear, *edetu*=hermosear, *untzatu*=clavar, *ezetsi*=menospreciar. (*Ibid.*)

Izkindearen eredura antolatua dago, hitzez hitz; ikus bedi honetarako, Laka 1986b §. 2.1.12., *Langotu / langoge* zatiketa *Izkindean* sorturikoa dugu; beraz Arriandiagak ezin zezakeen beste inondik jaso; bestalde, eskuizkribuaren 13. orrialdea gaintetik begiratzea aski dugu egiaztatzeko zein den *Mibisusen* iturria. Hurrengo pasartearen, *Izkindea* bera dugu:

El verbo adjetivo es, por su función, transitivo ó intransitivo. Es transitivo aquél cuya acción significada sale del agente ó sujeto para terminar directamente en el paciente ú objeto; intransitivo, aquél cuya acción significada no sale del agente ó sujeto, sino que en él mismo halla su término. (*Ibid.*)

Laka 1986b §.2.2.2.era joaz gero, aise ikus daiteke Arriandiagak definizio hauetan sartzen duen gauza berri bakarra *acción significada* sintagma dela, *egimena* edo *acción*-en ordean. Alabaina, Azkueren izena, edo bere gramatikarena, ez dira behin ere aipatzen; eskuizkribuan ostera eta berriz ageri zen irakaslea, eta irakaslearen lana, desagertu dira 1907.eko lanean, nahiz funtsean, eta funtsean baino areago ere, lan bera diren hau, eta 1897.ekoa⁵.

Zenbait urte beranduago, 1915.ean, Arriandiagaren «La reforma de la Conjugación Euzkérica» argitaratzen hasi zen *Euzkadi*-n. Egileak berak esaten digunez, 1907.eko lanaren jarraia da oraingo hau:

(5) Lehenago esan dugun legez, gure asmoa ez litzateke hainbeste Arriandiagaren artikulua hauen azterketa osoa burutzea, honek gehiegi luzatuko bait luke gure lana, baizik lan hauetan ageri den *Izkindearekiko* eta, noski, *Euskal-aditza*... eskuizkribuarekiko zorra azaltzea, hala nola Arana-Goiriren eritziak jasotzen duten trataera. Aurkeztu ditugunak baino askoz gehiago dira, lehen artikulua honetan, *Izkindea* eta *Euskal-aditza*... eskuizkribuko oihartzunak; guztien biltzeak, halere, ez du interes handirik, uste bait dugu eskeini direnekin nahikoa dela frogatu gogo genuena erakusteko. Aipa daitezke, bidenabar, *tsi* eta *ki* morfemei buruzkoak: «Cuando los verbos llevan en su propia idea la necesidad de una persona á quien aproveche ó perjudique la acción de aquéllos, toda vez que esa idea tiene por elemento en la conjugación transitiva el infijo *tsi* y en la intransitiva en infijo *ki*, suelen llevar alguno de dichos infijos como orgánicos». (ARRIANDIAGA, 1907, 61.or.). Ikus bedi eskuizkribua, 52.109, edota *Izkindea*, 157.or. Azkuerenak diren eritziak, hots, *Izkindeatik* jasorikoak, bere aurkikuntzak bailliran aurkezten ditu sarrir Arriandiagak: «También se emplea el verbo *egin* con palabras que significan fenómenos meteorológicos: por ejemplo: *eurija egiten dau*=llueve. Tengo, sin embargo, por ilegítimas esas expresiones. *Egin* es verbo transitivo; luego si *eurija*, *edufa*, *ixingofa*, *axia*, etc. son sujetos del verbo, deben llevar el sufijo agente *k*; pero no lo llevan. Ni creo que quede á salvo la corrección de esas expresiones, diciendo sobreentenderse por agentes Dios ó la naturaleza. Allá los latinos con esas interpretaciones; el vasco nunca fué tan ideal é indeterminado en sus concepciones y en su lenguaje: al expresar los fenómenos de *lluvia*, *nieve*, etc..., nadie piensa en hacer intervenir en ellos á Dios, ni menos á la naturaleza, á quienes no ve ni observa como causantes de tales fenómenos sino por reflexión filosófica, ajena enteramente al vulgo, cuyo patrimonio es, sin embargo, el lenguaje y la expresión de tales fenómenos. Creo que hablaríamos correctamente diciendo *eurija da*=llueve, *edufa da*=nieva, *ixingofa zan*=granizaba, etc..» (ARRIANDIAGA, 1907, 63.or.). Erka bedi hau, *Izkindearen* pasarte honekin, hain zuzen ere eguraldi-aditzez diharduena: «Aidako egimenak adierazoteko' izan aditzak lagunduten daute: *Euria dai*=es lluvia (1a), llueve, *edurrik ezdai*=no nieva» (AZKUE, 1891, 152.or.). Eskuizkribuan ere jasotzen zuena Arriandiagak: «Erakai augaitik bere' egin-ez aditzu bearrean' izan aditzaz aditzuko daiz eguko egimen aidakoak: gertariak: *euria dai*, *tsingorra itzan*» (16.18). Ohar bedi adibideak berak ere, ezin berdintsuagoak direla.

Quien estas líneas escribe publicó hace años en esta revista dos artículos con el título *Notas sobre el verbo euzkérico*, artículos que, por motivos que no es del caso exponer, no tuvieron la continuación intentada. En ellos pensaba exponer a los euzkeráfilos y euzkerágrafos sus ideas sobre la conjugación del verbo euzkérico. (ARRIANDIAGA 1915, 76).

«Notas sobre el verbo euzkérico» lanean, Arriandiagak aditzari buruzko sailkapen orokor bat eskeintzen zuen, ikusi dugunez; sailkapen honetan, baina, aditz nagusia zen gaia batik bat, eta berarekin, aditz nagusiari erantsi dakizkiokeen zenbait atzizki. Haatik, 1907.eko artikulua ez da aditz laguntzaileaz arduratzen. 1915.eko artikulua hauetan, aditz laguntzailea eta bere berrituraketaz mintzatuko zaigu *Mibisus*; berriz ere, *Euskal-aditza...* eskuizkribuaren egitamua:

Es evidente que el verbo euzkérico ha llegado a nosotros en un lamentable estado de descomposición. Es obra altamente patriótica, sanearlo, purificándolo de los defectos a que la ignorancia y el tiempo lo han traído, y restablecerlo a la brillantez que sus leyes internas, conservadas en las flexiones actuales, como brasa oculta entre cenizas, reclaman imperiosamente. (76-77.or.).

Zenbai zehetasun gora-behera, Arriandiagak eskeintzen duen proposamena, eskuizkribuan itxuratutako berbera dugu; begien bistan ageri zaigu hau, bere hipotesien arauerako aditz paradigmak azaltzen zaizkigunean:

	Me	Te	Lo
1 yo	azat	dazat
2 tú varón	nazak	dazak
2 tú hembra	nazan	dazan
3 él	naza	aza	daza
1 nosotros	azagu	dazagu
2 vosotros	nazazu	dazazu
3 ellos	b.p. nazae	azae	dazae
	vasc. nazate	azate	dazate

(86.or.)

Aditz forma hauek *Euskal-aditza...* eskuizkribuan ageri direnekin erka ditzagun:

I Urreko irabiamena.

Maite dazat (daut)
dazak (dauk)
dazan (daun)
daza (dau)
dazagu (daugu)
dazazu (dauzu)
dazae (daue)

Bildur naza (nai)
aza (ai)
aza (ai)
daza (dai)
gazaz (gaiz)
zazaz (zaiz)
dazaz (daiz)
(69.149)

Aditz formen argitara, beraz, esan liteke 1915.eko lana ere, 1907.ekoa bezala, *Euskal-aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi ta Zuberoko izke-*

rantzetan garbiturikoa eskuizkribu zaharraren gaurkotzea direla. Arriandiagak azaltzen duenez, bere itxuraberritze honek, hiru ardatz nagusi lituzke:

Comprende la reforma: 1.º restitución de *i* y *zu* a su primitiva condición de pronombres de segunda persona, singular y plural respectivamente, y abolición consiguiente del plural advenedizo *zuek* y de la distinción entre pronombres familiar y respetuoso.

2.º Unificación del pluralizador en los dialectos vascón y pirenaico.

3.º Restauración del núcleo verbal primitivo de *izan*, *za*, para todos los dialectos. (83.or.).

Lehenengo puntuari dagokionez, Arriandiagak ezin esan dezake hau berak lehen aldiz proposaturiko ezer denik; dakigunez, *Izkindearen* gai nagusienetako bat hauxe dugu, hain zuzen:

I bakarra ta *zu* diakoa daizala autortu daigun bada; edo euskarak berez ezdauela *i-n* ordez *zu* esaten⁶.

Izan ere, Arana-Goirik ez zuen inoiz ontzat hartu Azkueren eritzi hau; abandotarrak, bere aldetik, beste proposamen bat erakusten zuen *zu/zuek* arteko istiluan: *hi* izenordaina erdarazko *tu*-ren kidetzat hartuz, *zu* singularrean erabiltzearen alde zegoen, aditzean plural marka kenduaz (ikus honetarako Laka 1986b §.2.6.; 2.10. eta 2.16.3.2.). Arriandiagak proposamen biak aztertzen ditu, baina ez batean eta ez bestean, ez du Azkue eta Aranaren izenik aipatzen. Bidenabar soilik aipatzen da *Irakaslearen* izena, baina ez proposamen bietatik baten aita dela esateko, baizik *zau* aditz formari buruzko iruzkin bat egiteko (Laka 1987a, 22. oharrean jaso dugu aipamen hau); Arriandiagak, zenbait hiztunen joera balitz bezala aurkezten digu, Arana-Goirirena bakarrik zen jokabide hau; aipua, honela jarraitzen du:

Esto está al alcance del escritor y del hablante; pero no está al alcance de un particular restituir a *zu* su primera significación plural y conservarle sin solecismo las flexiones verbales actuales. El escritor y el hablante que quieren escribir y hablar en gramática necesariamente deben adoptar el primer sistema, mientras no venga en gana de los euzkeldunes restituir a *zu* sus primitivas funciones⁷.

Hala ere, Arriandiagak Aranaren bidea utzi, eta Azkuerenaren alde jartzen da:

¿Cuál de estas dos reformas es preferible? A nuestro juicio, la segunda, que restituye a *zu* el significado y funciones plurales⁸.

(6) AZKUE, 1891, 71.or. Arazo honetaz, ikus *Izkindea* 70.etik 73era, eta baita 183-184.or.; Arriandiagaren eskuizkribuan, 84. orrialdetik aurrera.

(7) ARRIANDIAGA, 1915, 84-85.or. Beraz, Aranak aurrera atera asmo izan zuen aditz-aldaketa hau, idazle eta hiztunen joera bezala aurkezten zaigu, ez *Irakaslearen* proposamen bezala.

(8) ARRIANDIAGA, 1915, 87.or. Honekin batera, Aranaren beste irakaspen bat ere gaitzetsia suertatzen da, *iek* izenordain pluralaren erabilpena. Arriandiagak azaldu egiten du teoria guzti hau, egilearen izenik aipatzeko, zeren gaitzetsia izango bait da: «Esto nos hace dar un plural a *i* o *tú* que será *iek*, y pluralizar las flexiones correspondientes». Ikusten denez, bada, bakarrik aurrera egingo duten Aranaren proposamenek daramate bere izena; gainerakoak, arbuiauak izango direnak, Aranaren idatzietan inoiz agertu izan ez balira bezala aurkezten dira, bizkitartean. (Goiko aipua, ARRIANDIAGA, 1915, 86.or.).

Itxuraberritzearen bigarren puntuari dagokionean, eskuizkribuan agertu zituen eritzi berberak azaltzen dizkigu orain ere Arriandiagak; bere hitzak ekarriko ditugu hona, 156 eta 157. orrialdeetako esanekin erka daitezten:

El segundo punto que alcanza la reforma es la unificación del pluralizador. (ARRIANDIAGA 1915, 88.or.).

En el dialecto bizkaíno no hay dificultad; es evidente que no conoce otro pluralizador suyo propio que *z...* (*Ibid.*).

Bizkaierari buruzko aipamenean, aurki genezakeen alderik nabariena aurrerago ekarri 29.61 pasartearekin, Azkueren izena desagertu dela litzateke.

Estudiando el verbo auxiliar gipuzkoano hallamos dos pluralizadores bien definidos: *it* y *zki*. *It* se usa en flexiones objetivas simples; *zki* en las complejas u objetivo-pronominales (...)

Lo propio acontece en las demás variedades del dialecto vascón, como son el laburdino y el alto nabarro, aunque se hallan formas con otro pluralizador; por ejemplo: *tza* en laburdino... (*Ibid.*).

Eskuizkribuan ematen ez den urratsa betetzen du, haatik Arriandiagak, beranduagoko lan honetan; pluralgile guzti hauetatik, bakar bat aukeratzten da, aditza batzeko:

Para unificar el dialecto no podemos quedarnos en medio de ese revoltijo: es necesario que nos contentemos con un pluralizador.

El cual, si se tratara de la unificación de todos los dialectos, creo sin género de duda que debiera ser *z* o *tz*, pues estos son los que privan también en bizkaíno y pirenáico. (89.or.).

Aditz erroari dagokionez, hots, Arriandiagak bai eskuizkribuan eta bai 1915.eko lanean ardatz nagusi darabilen gaiari buruz, aldaketa guzti antzeman daiteke batetik bestera; aldaketak, ezer baino gehiago, idazketa mailakoak dira, edota datu gehitzearen arauerakoak ditugu.

El tercer punto de nuestra reforma es la restauración del núcleo verbal primitivo *za*. (91.or.).

Proposatzen den erroa, bada, eskuizkribukoa bera dugu (ikus gorago bertan). *Euskal-aditza...* lehen lan hartan (44.89) bi hipotesi zerabiltzan Arriandiagak erro honen jatortasuna frogatzeko, *za > ro > o > u* bilakaera zen bata, eta honetarako iparraldeko euskalkien aditz formak hartzen zituen oinarri (*diro, dirot...*). 1915.eko lanean, hau irakur dezakegu:

La tercera razón que abona nuestro parecer consiste en la reconstrucción del proceso metatético de las flexiones verbales, desde las primeras hasta las hoy en uso. Es el siguiente:

1 *Dazat* o *dezat*; 2 *datzat* o *dezat*; 3 *darat* o *derat*; 4 *darot* o *derot*; 5 *daot* o *deot*; 6 *dot*, *daut*, *deut*; 7 *dot*, *dut*, *det*; 8 *dit*. (92.or.).

Bere arrazoibidearen harian, Arriandiagak *eun* aditzaren hipotesia

kritikatzen du; bere aditz erroaren tesia *izan* aditzarena baita. Hone-la dio:

La hipótesis de un verbo *eun*, que ha precedido, no nos parece admisible. Dicho *eun*, que siempre sería distinto de *eun*=hilar, nos habría dejado muy probablemente algún rastro de su existencia, en el uso o significado diverso de las meras funciones auxiliares. Así sucede con el verbo *iñon* o *ion*=decir, que si ha desaparecido como infinitivo, tiene existencia y funciones claras, definidas e independientes en las flexiones *diñot*, o *diot*, *diñok* o *diok*, etc. (95.or.).

Arana Goirik, Laka 1987a-n erakusten saiatu garenez, ez zuen asko landu aditzaren alorra. Aitzitik, hipotesi baten aldeko agertu bazen, gure eritziz Arriandiagak hemen gaitzesten duen honen antzeko baten alde agertu zela esango genuke. Bere hitzek ez dute *eun* aditza zuzenean aipatzen, baina nolana ere, hortatik oso hurbil dagoen ideia hau azaltzen du:

Caracterízalos el auxiliar transitivo de las conjugaciones, el cual se representará aquí por *eu*. (O.C. 2342).

Eta *eu* delako honekin, aditzak sortzen ditu, zerrenda luze batean; adibidez:

gura-eu (desear), de *gura* (deseo).
al-eu (poder), de *al* (potencia).
bia-eu (necesitar), de *bia* (necesidad)...⁹.

Are gehiago, ondorengo hauek, Arana-Goirenen hitzak ditugu, bere «clasificación del verbo bizkaino» lanean idatzitakoak: «...el verbo haber, que representaremos por su raíz *eu*, que en origen fué *au*»; (O.C. 2345). Arriandiagak, aldiz, beste hau diosku, inolaz ere Aranaren izena bere mintzoan arildu gabe:

De todo lo cual se deduce nuestra opinión de que no hay un *au* primitivo que signifique *haber* y *ser*. Ni siquiera en las formas usuales *au* es núcleo verbal, sino *u*, pues la *a* es residuo fonético, como en *dakust*, *daroat*, *datoat*... (1915, 95).

Bi ohar egin nahi genituzke pasarte honen inguruan; lehena, eskuizkribuan biltzen diren eritziekin duen antzekotasun ezin handiagoa, eta bestetik, nola eskeintzen diren *formas usuales* bezala *au* erroa dutenak, hots, *dautsat*, *dausku*, e.a., ikusi genuenez, bizkaiera idatzian 24 urte lehenago inolaz ere aurki ezin zitezkeenak. Iragana, literatur tradizioa, eta hizkuntza beraren datuak goitik behera aldatzen dira, eta atzo gertatutakoa, mendeak balitu bezala aurkezten, edo aurrekoek esanikoa aurkikuntza berria bailitzan plazaratzen.

Arriandiagak, bada, Azkueren *Euskal-Izkindea* erabili zuen bere lanetan oinarri, baina inoiz liburuari zor zionik aipatzeke; bere irakaslea Arana-Goiri zela aldarrikatzen zuen arren, bere eritzi eta teorien

(9) ARANA O.C., 2342.or. Jakina denez, Arriandiagak, Eleizalde bezala, Arana-Goirenen lan hau argitaratu zuen, zenbait oharrez orniturik. *Eu* delako honi buruz, ez da behin ere oharrik egiten.

atzean abandotarraren itzala baino gehiago, *Izkindearen* egilearena nabari daiteke. Azkuek, Arriandiaga ikasle eta jarraitzaile izan zuelarik, oso garbi ikusi zuen gertakari hau, eta, bidenabar bada ere, hizkuntz arazoetan aurkako eduki zuen Arriandiagak bere gaztaro-lanari zor ziona adierazten saiatu zen, ironikoki, bere *Morfología vasca*-n. Aditzari buruzko kapituluan, ohar luzea, egiten du, guk osorik bilduko duguna bere interesagatik:

El autor de mi *Euskal-izkindea* nacido el año de 1891, definió así el verbo: «palabra expresiva de la existencia calificada o no calificada de las cosas». Y añadía: «en la naturaleza no hay más que seres... Todos los seres tienen esencia y existencia: la esencia suelen manifestarla los nombres, las existencia los verbos. La existencia (como también la esencia) puede ser calificada o no calificada... El verbo *izan* (ser) suele expresar existencia no calificada o pura; todos los otros verbos suelen manifestar existencias calificadas, o para decirlo mejor, cualidades de la existencia».

Quince años más tarde aparecieron en *Euzkadi* (Revista) unas *Notas sobre el verbo euzkérico* (sic) en que su celebrado autor dice: «entre las muchas que pueden darse, elijo la siguiente: Verbo es aquella parte de la oración que significa la existencia de las cosas. Todos los seres criados tienen esencia y existencia, ser y existir; el ser es manifestado por el nombre; la existencia por el verbo... El verbo es sustantivo o adjetivo: aquél manifiesta la simple existencia; éste la existencia cualificada. (502-503.or.).

Eta aurrerago:

No hay verbos irregulares entre ellos, aunque advirtamos más de una anomalía en su conjunción; eso que el autor de aquella obra de 1891, y su más asiduo lector el de las *Notas sobre el verbo euzkérico* sientan y asienten lo contrario. (503.or.).

BIBLIOGRAFIA

- AKESOLO, Lino, 1965, «Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas» *BAP*, XXI, 35-63.or.
- ARANA-GOIRI, Sabino, *Obras Completas de Arana-Goiri'ta' Sabin*. Buenos Aires: 1965, (Sabindaf-Batza).
- , 1896, *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, (*Obras Completas argitalpenaren arauera aipatua.*)
- ARANA MARTIJA, J. A. 1983, *Resurrección María de Azkue*, Colección «Temas vizcainos», IX, 103-104 zenb. Bilbao: Julio-Agosto. Bizkaiko Aurrezki Kutxa.
- ARRIANDIAGA, Manuel, 1907, «Notas sobre el verbo euzkérico», *Euzkadi*, IV, 229-236. (argitaratzeko dagoen Jesus María Aldayren *Obra euzkérica del P. Manuel de Arriandiaga*-ren arauera aipatua).
- , 1915, «La reforma de la Conjugación euzkérica. Estudio y ensayo», *Euzkadi*, XII, 67-73, 99-106, 106-165, 305-313, 429-437. (argitaratzeko dagoen Jesus María Aldayren *Obra euzkérica del P. Manuel de Arriandiaga*-ren arauera aipatua hau ere).
- ASTARLOA, P. P., 1803, *Apología de la lengua bascongada*, Madrid: G. Ortega.
- , 1883, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*. Bilbao: Velasco.

- AZKUE, R. M., 1891, *Euskal-Izkindea*, Bilbo: Astuy.
- , 1893, *Bein da betiko*, Bilbao: Casa de Misericordia.
- , 1896, *Método práctico para aprender el vascuence bizkaino y guipuzkoano*, Bilbao: Astuy.
- , 1906, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao.
- , 1925, *Morfología Vasca*, Bilbao: Editorial Vasca.
- , 1947, *Euskalerraren Yakintza*, Madrid: Espasa-Calpe.
- CAMPION, Arturo, 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa: E. López.
- CORCUERA, Javier, 1979, *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco. 1876-1904*, Madrid: Siglo XXI.
- ELORZA, Antonio, 1978, *Ideologías del nacionalismo vasco*, San Sebastián: Itxaropena.
- EYS, J. W. J. van, 1879, *Grammaire comparée des dialectes basques*, París: Maisonneuve.
- IRIGOYEN, Alfonso, 1957, «Del epistolario de Azkue», *Euskera*, II, 261-393.
- , 1958, «Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaino literario», *Euskera*, III, 105-132.
- LAKA, Itziar, 1986a, *Hiperbizkaieraren historiaz. Hastapenak*, E.H.U.ko tesina argitaragabea.
- , 1986b, «Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra. (Hiperbizkaieraren historiaz I)» *ASJU XXI-2* (1987).
- , 1986c, «Euskal Izkindeako aditza. (Hiperbizkaieraren historiaz II)» *ASJU XX-3*, 705-754.
- , 1987a, «Sabino Arana Goiri eta hiperbizkaiera. (Hiperbizkaieraren historiaz III)» *ASJU XXI-1*.
- , 1987b, «Manuel Arriandiaga. Euskal-aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa» *ASJU XXI-3* honetan.
- LARRAMENDI, 1729, *El imposible vencido*, Salamanca: Antonio Joseph Villagordo.
- MITXELENA, Koldo, 1954, «Nota sobre algunos pasajes de los Refranes y Sentencias de 1596.», *BAP*, XIV, 479-480.
- , 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: Minotauro.
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao: Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya.
- , 1981, «Lengua común y dialectos vascos», *ASJU*, XV, 289-313.
- «Sabino Arana Juzga a Miguel de Unamuno», *MUGA*, 1980, I, 17. zenb. (ez da argitaratzailearen izenik ematen).
- SARASOLA, Ibon, 1975, *Euskal literatura numerotan*, Donostia: Kriselu.
- TOVAR, 1952, *La obra de D. Resurrección María de Azkue. Edición recuerdo de la velada necrológica celebrada el día 4 de enero de 1952 para honrar la memoria del virtuoso sacerdote e ilustre vascofilo*. Bilbao: Imp. Provincial.
- , 1966, «Azkue gramático», in *Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático*. Bilbao: Junta de cultura de Vizcaya.
- VILLASANTE, Luis 1979, *Historia de la literatura vasca*², Aránzazu.
- ZAVALA, Mateo, 1848, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*. San Sebastián: R. Baroja.

ERASKINA:

M. ARRIANDIAGAK R. M. AZKUERI GUTUNAK (1896-1916)

[1] Kalzadan, 1896-garren urteko Abenduan 20-garrenan.
Azkueko Resurreccion Maria Abadeari.

Gure Abade laztana:

Ikastegi onen euskaldun batzuk' Marian biotzeko seme-biralduek' i dontsutu ta iri agertuteko gure biotzen sentzumenak gaur iganatuten gaiz. Euskaldunak gaiz gustiak; on bada iri izkiratutera askortu erazoten daukun abizaria. Euskaldunak gaiz; euskaldunen bada legez' biotza minan euki gura dauagu. Eskutitz onen uts askoetan iausiko gaizala badazaugu; euskal-izkeraan ikaslariak gaiz; an baina bukatuak urten nai izaten' utsaldi gustiak adierazoten badauskuzak' gure zori ona izango dakigu.

Lenen' i urreko gauongaitik dontsututen da urte barria dontsu dontsua ta osanun betea gura izaten gozoa dakigu. ¡Beleneko ume maiteak bere do ta onetzimenen betetasuna ta aingeruak aotsaldituten euen bakia ire biotzaganean isuri daiala!

Irailgo lenengo egunetan Ikastegi onen euskaldunak artu geuan «Azkueko Resurreccion Maria abade Bizkaiko lenengo euskal-irakasleak eratu ta biurturiko Euskal-Izkindea». Alditik izkinde baten euskera miragarriari egokian utsa gezaun; eta gure Ama laztanan zorigaitz andi au negar egiten geuanean gure eskutara etorri itzan Euskal-Izkindea. Orduan bizi izan itzan gure biotza' ikusita Bizkaiak' eriotzari urrekoa' sartu dauala ekarri bat bere sertasunari egokia, ekarri bat bere bizitzaan bakarra' ekarri bat erri gustiai Bizkaiak bere eriotzan bizitza andi ta sarkorra goa bezte erriak baino daukala agertuten dautsena.

On bada gure iaiotherrian zori-ongaitik pozik iganatuten gaizala. Ire Izkinde gaitik dontsututen dauagu biotz biotzetik' eta zeru ta lurreko do ta zori-on gustiak gura dauagu; ¡Jaungoikoak zerutik bere argiak emon beizk ire erriri aurreantzean balioagoa izateko! Ire Izkindea artu daugunetik' Ikastegi onen gozoz eta biotzetik euskal-izkeraa ikasten daugu Marian biotzeko seme-biralduek' euskaldunak' aldi egokia datorrenean Jaungoiko ta Marian anditasunak eta biraldaldi edo misionekaz betiko egiak euskal-erriko semeai ire euskara garbiaz agertu ta predikatuteko; eta zelan elizetan euskal-edertasunen geienak sartu dakiguz, gure agermenakaz elizak euskal-izkeraan bizitza barri ta sakorran asieraa izango daiz: elizaz aginduten daugu euskal-errian sartuko daila euskal-irabiemen garbia; gure biraldaldi ta sermoiak izango aldiz euskal-izkeraan biztueraan oilarritea!

Ganera' gure bularra pozez bete dauku euskal-izkeraan aurreramena ikuste. Aldiaz ikusi daugu ire ikaslarien aurreramena agertuten daukun da euskal-diartetasunari balio izango dain' «Euskera 120 irakurtaldietan». Augaitik ezin i dontsutu baino bezterik egin daugu' ta ire ikaslariak diaskitu daizan gure gura ta opak argitu. Ganera' Irakurtaldien egilea itzaurrean aginduten daun Euskal-Izkindea argitaratua badaila' eskutitz au izkiratuten geuanean barrigaien «El Pilar» poz pozez ikusi daugu. Bai augaitik bere dontsututen dauagu eta beraganantz gure bularra bete dagonen sentzumenak' euskal-erri ain balio izan dailako' gure alde argitu daiola ezkatuten; Ire ikaslari ain iakindunakin' euskal-izkeraan ondasun da anditasunarako euskal-ikasola bat' Begoinako gure Ama ta Andra laztanan zaipean eratuko al daike!

Irakurtaldien baina ta ire *Izkindean* ikasteak zailtasun batzuk guban sartu daukuz bien bardingetasunetik iaierikoak. *Euskal-Izkindeak* dakarskuz aditz gustien gunak; Irakurtaldiak baina arautso bat emoten daukue onelan: aditz irabiagarrien gunak aditz mugean lenen ta azkengo izkiraa kenduten eratuten

daiz; guna ondoan eratuak lokarriko izkiraa *a* urreko usteetan' artuten daue, urrunekoetan baina izkiraa *e* izkira itšiaz asiko badaiz guna; ezbadai' ezdau lokarriko izkiraa artuten. Arau au ire Izkindean argitasuna baino ikasmen eta azalgetaen ekarria uste daugu; arau au *Euskal-Izkindean* ikasmenakaz aldetuten zailtasun batzuk iaotzen dakiguz; on emen lenengoa:

Aditz ioan-en uste urrunekoa arau on legez izan bear dai' *nenoa*, *enoa*...; Izkindean baina *ninoan inoan*... ikusten daugu. On emen zailtasuna: ¿Bien artean zein irabiamen garbia ta egikoa dai?

Bigarren zailtasuna. —Arau legez' aditz euki-n guna *uk* izan bear dai; eta ganera adizkia iratzi bear dakio izkira edegiaz bage' guna *uk* izkira edegiaz asiten dailako' onelan: *daukat, ukak*... eta *nukan ukan*... ¿Zergaitik bada *daukat daukak*... 'neukan eukan'... esaten dauguz? Eta ezin *daukat* eta *neukan*-en garbitasuna ezbaituten bageu; ¿esango daugu ondo azalduta araua aldaila?

Ganera' ¿aditz *esan iardu irau*n irudi *eutsi eritsi* ta *irakin*-en gunak zelan arau onaz eratuten daiz? ¿Aditz onek' aditz *izan* ganean bere' araugeak daizala edo arau ok ezdaila esango daugu?

Zailtasun gustitik' gure abade ta euskal-izkeraan irakasle laztana' urten gura izaten' da uts eta ezbaia bage euskeraz diardu, agertu daiskuala zailtasun onek' ariak aldirik emongo badauske' biotz biotzetik eskertuko dauagu; esakune batek bada dinosku: «qui dat esse dat et essendi perfectionem»; guban baina sartu dauku ire *Euskal-Izkindeak* dakigun euskal-izkeraa.

Ezin urrengo izkiratu daugu' azatza ezdakilulako; on emen' erantzun gura badauskak' azatza: Logroño. —M. Rdo. P. Superior de los Misioneros Hijos del C. de María. —Sto. Domingo de la Calzada.

Agur' gure abade ta euskaldun laztan laztana: aurrerantz Ama Izkeraa erri gustiai agertuteko', Iaungoikoak bere do ta argiak emon beisk. Nai Euskal-Izkindeagaitik' nai egun berri ta urte asitekoa gaitik' artu eik biotz biotzetik emon dauaguzan dontsumen da eskerrak.

Ikastegi onen bezte euskaldunen izenan
Elantsoberarra, Manu Arriandiaga,

Marian biotzeko semea

Durangarra, Jose Erzilla, M. B. S.

Errigoitiarra, Jose Rementeria, M. B. S.

Gernikarra, Prantzizko Ozamiz, M. B. S.

[2] ZEDROAN EKARRIAK

*Josepa Olabarrietari
Esker-Argimena*

Baratz orritsua dago
Euskal-erri maitean:
Baratz au polita gagoz
Bilboa dailakoan.

Buru bat altsua dauka
Zeruetan sartuta,
Eta aingeruen artean
Marian oinetara

Bere erdian, bere erdian.
Zedrotzar bat dakusku.
Zugatz ugari daila
Gustiok badazaugu.

Erduten daiz egunaro
Bere ekarri gozoak
Marian biotza pozez
Bete daroanek.

Bere adakai zabalpean
Errukarri guztiak
Atseginez topa dauez
Ian-edan ugariak.

Argi-ialkian iarrita
Maria dago pozik
Zoriondunen artean
Ekarri onekaitik

Zoriondun guztiai
Biurturik onetara
Itz polit eta gozoak
Asi doa egitera.

"Aldakutsuz, Zerutarrak,
Nire argien andia
Ta bere nire buruan
Dagon koroï ederra?"

"Nire tšinpar argitsuak,
Eguzkia goituta,
Argiak beteten dauz
Zeru ta lur osoak

"Edertasunen aldean
Iletargi ederra
Argiako dagonean
Dago guztiz iluna.

"Gauaro polita baten
Zeru eder izartua
Antzeratuten dirudi
Nire buru argitsua.

"Orain bada, baldakizu,
Zerutar doatsuak,
Nork ipini daustazala
Apaindura ain ederrak?"

"Au iakin gura badauzu,
Ioan zaitetz Bilbora;
Arin arin sartu zaitetz,
Nire eliza donera.

Arain eder ta argitsua
Irudian aurrean
Ta kandelari politik
Badakutsuz aldean.

Zidarrezko koroia
Dago buru-gainean
Ta diamante argitsuak
Josirik bertan bertan

"Orain bada iakin eizu
Onelango ekarriak
Ugari sortu dauzala
Bilboko zedrotzarrak

"Bere izena iakin bere
Guztiok bear dauzu;
¿Josepa Olabarrietar
Bilbon baaldazauzu?"

Itz onek esanda gero,
Aingeru bat ederra
Mariak biraldu euan
Arin arin Bilbora.

Aingeru sartu itzan
Joseparen etsean
Itz onek esatearren
Mariaren aldean.

"Dinosnat, Olabarrietar,
Zeruan prestatua
Koroia daukanazala
Ialki bere argitsua.

"Bere alboan dagola
Zeruko Erreginak
Gura dau, gozatuteko
Betiko atseginak."

Iose, Marian senarrak,
Bere ialki garaitik,
Onelango biralmena
Ikusten euan pozik

Poz itzan begiratuten
Bere zainpeko Zedroak
Ugari sortu dauzala
Onelango ekarriak,

Augaitik diaskituten
Dauz Iosek bere zainak,
Diaskitu bere daizan
Zedroan ekarriak.

Eta ekarri onen bidez
Zeruko atsegina
Irabazi bere daizan
Eta ialki agiria.

Manu Arriandiaga ta Gorozikarrek,
M. B. S.

J. M. J

[3] Sto. Domingo de la Calzada, 19 de marzo de 1897.
Rdo. Sr. D. Resurrección María de Azkue.

Reverendo y Apreciado Señor:

El bien siempre ha de dar pruebas de sí: no puede estar sin comunicarse á los demás.

Esta verdad es la que me da la explicación satisfactoria de su proceder tan fino para con los euskaldunes hijos del C. de María de este Colegio. Sí, Reverendo Señor; si hasta ahora nos hemos creído obligados á V. por los títulos que V. conoce, en adelante no sólo nos creeremos obligados, sino también atados para con V. por la generosa y larga bondad que para con nosotros ha mostrado. No sabemos adonde acudir para agradecerle debidamente sus beneficios, sino á Aquella que, aunque indignos, se dignó admitirnos entre los Hijos de su Corazón inmaculado, y rogarle que tome Ella á su cargo recompensar los favores hechos á sus hijos; más que más, teniendo V. al favorecernos fines tan nobles como contribuir por su parte á la mayor extensión de la gloria de Dios en la Euskal-erría y a la que la preciosísima sangre del Unigénito de María produzca abundantes y copiosos frutos de bendición entre las almas bascongadas. Poniendo con nuestras oraciones el negocio y la obligación en tan generosas y agradecidas manos, creemos haber satisfecho á la obligación y deuda que con V. hemos contraído. Sin embargo de esto, no nos olvidaremos, en cuanto nos sea dado, de hacer lo que de nuestra parte podamos: estamos atados con V.; ¡quiera el Señor que sepamos satisfacer á tales ataduras!

Tengo el gusto de repetirle mis saludos y los de mis colegas euskaldunes y de encomendarnos á sus oraciones para que el Señor nos haga dignos ministros de su palabra.

B. S. M. y se repite de V. S. S.
Manuel de Arriandiaga, C. M. P.

[4]

J. M. J.

Sto. Domingo de la Calzada, maiatzeko 18-garren egunean, 1897-garren urtean.

Resurrección María Azkuetar abadeari:

Ene abade ta Jauna:

Egun onetan ene arrebaak, Arriandiagako Benitak, ta bere senarrak Epifanis Aldamiztarrek ikustatu naue. Bilbon egotaldi bat egiten asmatu daue: on bada' igandik arturiko mesedeai iaramon nairik' nire aldean ikustatu aiela ta ene biotzeko esker-argimenak argitu' eskatu dautset.

Iri, bear ta gura neukenez, zelan oneginak eskartuteko ezdakit. Nirez ikustatu ezin aiket, arrebaan bidez bada' bear au bete gura daut. Ganera' ik artezturiko Albistari ganean itz egin dautset eta berari eustera bizkortu: eutsiko daizala agindu dauste.

Ikastegi onetako euskaldunen maite-argimenak artu eizak. Egunaro gure eskarietan ago. Edozertarako balio baneusk' beti ire eskuen artean naukak.

Manu Arriandiagatar. M. B. S.

[5]

J. M. J.

St. Domingo de la Calzada, 12 de Julio de 1897.
Sr. D. Resurrección M. de Azkue, Pbro.

Reverendo y apreciado Señor:

Nueva deuda de gratitud motiva la presente. Días pasados, junto con los números correspondientes de «Euskalzale», recibí dos preciosos ejemplares de «El Eúskara en 120 lecciones». Esta es otra fineza que V. junto con sus dignos colaboradores ha tenido para con los euskaldunes de este Colegio. Si todas las anteriores nos tenían sumamente obligados a V., esta su nueva generosidad es ligadura nueva que nos ata con V. y nos estrecha á corresponderle como nos sea dado. Como dije á V. en una de mis anteriores, al considerarnos impotentes para agradecerle debidamente sus favores, hemos empeñado para esto el Corazón Santísimo de nuestra Madre, á la que todos los días suplicamos dé a V. salud y larga vida para que pueda ser útil á la gloria de Dios y provecho del pueblo euskaldún por medio de sus conocimientos y enseñanzas eúskaras.

Desde que hemos empezado las vacaciones, estudiamos con más ahínco y tesón el prodigioso Eúskara, y leemos y examinamos los diferentes artículos del «Euskalzale», para sacar de su estudio el provecho que pretende V. al enviárnoslo.

Prueba de que no son inútiles en nosotros sus trabajos será el adjunto «Euskal-aditza Bizkai Gipuzko Lapurdi ta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa». Al enviarle este mi insignificante trabajo, no es mi ánimo alzarme antes de tiempo en maestro, pero reconozco mi impertinencia é ignorancia y que habré incurrido en muchos defectos; sino manifestarle con alguna obra nuestra gratitud y darle cierto consuelo al ver que no descuidamos nuestra lengua madre, sino que la estudiamos con tesón para poder algún día ser útiles al Señor en el país bascongado.

Fundado sobre sus enseñanzas emprendí este trabajito con el fin de facilitar á mis compañeros euskaldunes el estudio de los demás dialectos eúskaros, para que así pudiésemos más fácilmente entendernos en toda la Euskal-erría sin limitarnos simplemente al lugar donde nacimos. Muchas ocupaciones tendrá V. que no le permitirán quizá tomarse cuenta de dicho trabajillo: no se moleste V. por eso ni porque no le permitan contestarme. Las pruebas de fineza y amabilidad con que V. hasta el presente, aunque sin yo merecerlo, me ha distinguido, son para mí motivo sobranste para estar agradecido á V. y constarme de su benevolencia sin necesidad de nuevas cartas ni beneficios. Sin embargo, si alguna vez V. se halla suficientemente expedito, agradecería se sirviese indicarnos si procedemos bien en nuestro estudio y qué debemos corregir para salir perfectos en el Eúskara. Por lo demás, el trabajito que le envió, lo pongo todo en sus manos para que V. haga de él lo que estime conveniente.

Saludan á V. y le tienen muy presente en sus oraciones los euskaldunes de este Colegio.

Salúdale también, se encomienda á sus oraciones y B. S. M. S. S. S.

Manuel de Arriandiaga y Gorozika,
C. M. M.

[6]

J. M. J.

Sto. Domingo de la Calzada, 23 de enero de 1898.
Rdo. Sr. D. Resurrección M. de Azkue, Pbro.

Reverendo Señor:

El corazón generoso nunca se harta de prodigar favores. No satisfecho V. con habernos enviado gratis durante el pasado año dos ejemplares de la revista de

su digna dirección, ha querido continuar honrándonos en el presente año con tan singular favor. Los corazones agradecidos de los euskaldunes hijos del S. C. de María jamás se olvidarán del singularísimo favor y afecto con que V. los distingue, según lo comprueban los hechos; y por esto procuraremos agradecerle en cuanto nos sea posible, rogando especialmente al Señor y á nuestra querida Madre para que con profusión derramen sobre V. sus carismas celestiales y le recompensen colmadamente en el cielo tanta caridad como para con nosotros tiene V.

Con todo, permítame V. una advertencia. V., atendiendo sin duda á nuestro número y mayor comodidad, se digna remitirnos dos ejemplares de «Euskalzale»; esto es una prueba de su generosidad. Mas, atendiendo á la circunstancia de que todos los euskaldunes nos hallamos juntos, ya que quiere V. favorecernos con su revista, es mi deber manifestarle que con un solo ejemplar podemos cumplidamente conseguir los fines que V. pretende y por cuya consecución nosotros trabajamos. Siempre sus favores serán para nosotros cadenas que nos ligen fuertemente con V. y nos obliguen á corresponderle según nos sea dado.

Creo que será grato para V. saber que los domingos 9 y 16 del corriente el Ilmo. Sr. Obispo de Osma confirió órdenes sagradas en nuestra Iglesia de S. Francisco. Entre los numerosos agraciados, tomamos parte diez baskongados, seis de los cuales recibieron el diaconado, y de los cuatro restantes dos recibimos sólo el subdiaconado por falta de edad para más y los otros dos hallarse algo delicados de salud. Este será un nuevo medio con que agradecer sus favores teniéndole muy presente en el rezo del Oficio divino, como hasta ahora lo hemos hecho en las demás oraciones; Quiera el señor que seamos todos dignos imitadores de los Ignacios, Franciscos, Martines, Valentines y tantos otros que tanta gloria han dado á Dios y al país que les vió nacer.

En el verano pasado envié á V. mi cuaderno sobre el verbo éuskaro. Mi fin era agradecerle de algún modo los favores que V. nos dispensa y ponerlo á su disposición, si para algo podía servirle. En atención á sus muchas ocupaciones, no pudo V. enterarse de él hasta su viaje á Francia, como me lo certificó el Sr. Administrador: siento haberle molestado en sus muchas ocupaciones: fué no más que un desahogo a mi corazón y un testimonio de nuestra gratitud. No me ha sido posible concluir los dos apéndices que á dicho cuaderno corresponden, pues el estudio simultáneo de la Teología Moral, Derecho y Escritura con las demás observancias que como á religioso me obligan, apenas me dejan tiempo disponible; con todo, tengo el primer apéndice, bastante adelantado: mi mayor gusto será ponerlos á su disposición, si el Señor me es propicio y me concede proporción para terminarlos. Hoy, deseando darle una prueba más de nuestro reconocimiento, me tomo la libertad, aunque sea abusando de su bondad para con nosotros, de enviarle el adjunto estudio sobre el nombre primitivo de Dios en nuestra lengua. A su disposición lo pongo para que V. haga de él lo que mejor le parezca.

Termino repitiéndole de nuevo los sentimientos de gratitud y reconocimiento para con V. que nuestros pechos abrigan y prometiéndole continuar encomendándole a Dios, como hasta ahora lo hemos hecho.

Saluda á V. y está á su disposición S. S. S.

Manuel de Arriandiaga,
C. M. H.

[7] Roma-tik irail eta zortzi; emeretzireun ta bigafen urtia.

Ibaizabal-en Aítezkari Jauna:

Eskafxtuba eskatu biaf dautsut, eta uste dot beteko daustazula bijotzetik. Sotataf Efamón Jaunari ta Azkuetaf R. Maria abadeari iratzi biaf neutsen;

ta lenago bigafenaren zuzenbidia banekijan baña, lenguarena eztot ifioiz jakin ezta dakit Azkuetaf Abade jaunak aspalditxuon bixilekuba aldatu daunik. Ofexegatik, onezaz batera bidalduten dautsudazan eskutiz bijak eskatuten dautsut bakotxari beria zuzendu edo eldu-eragin dagixula. Jaungoikuak egiñen on au sarituko dautsu, ta neure eskañ-on ta afentxubak beti zeure alde izango dozuz.

Zeuk dakixun zetarako diran eskutiz bijok, esango dautzut anaya nebala Sota ta Aznar itxasontzi-baltzuban *Diligente*-ren buru; baña gaxualdijak etxeratu-eragin eutsala, gauf, osatuta, ezin daike gaxualdijak iramañteko itxi biaf ixan eban lekuba bafiro jaritxi, Bata, Sotataf Jaunari zuzenduba da, egija dazaguban ta zuzentasuna, nundik dagan jakin; bestia, Azkuetaf abade jaunari, onen bitañtektotasuna, al bada ta berak oi badau, añtetuteko.

Zeuk lagundu gura badauskuzu ot'urea ixanik, berbatxuren bat arazuaren alde esanaz, eskañ-oneko ixango dozu zeure eñtaf ta otsein au.

Aguf, nire eskañak aűfetijaz aűtu, ta agindu zeure otsein ta meza-esaleri.

Afiandiagataf Emanuel, ab.
Mariaren Bijotzeko Semia.

[8] J. M. ta J.

Roma, Via Giulia, 163-tik, iral'aren zortzigarrenian emeretzireun ta bigañen urtian. Azkuetaf Resurrección M. abade jauna.

Abade jauna:

Roma-tik gaur irazten dautsu lenago Sto. Domingo de la Calzada ta Segovia-tik iratzi eutsunak: urte bi dirala emen nago lagi bijak A. Nagusijen agind'uz ikasten: ufengo zemendijan asiko dot irugañena ta azkena, Jaungoikuak nai badau.

Aűfetik ori: arira nuala, Sotataf Eñamon Jaunari iratzi dautsat ageűtuten dautsadala neure anaya, Samuel ixenduna, berak eta Aznañtaf jaunak egiten daben itxasontzi-baltzuban lenago *piloto* ta aspalditxuon *Diligente*-ren buru ibil'i dala: atzo-edo-baten baña, gaxotu zan, ta gaxualdijak etxeratu eragin eutsan osatasunaren bil'a: bitañtian ofdezkuia ixentau eutsen; ta gauf osatuta badagola, ta bein-ta-bidañ bere lekuba eskatuta bere, sokondoratuta dago ogibide-bage, ofdezkuak egibidiari gogof dautsola. Eztakit, jauna, zeuk oi dozun ala ez iñoren alde zeure bitañtektotasuna aűtetu: oi badozu, edo beintzat nire anayaren zorigaűtuaz eűki ixenik, gu lagundu ta Jaungoikuaren mat'etasunagatik eta bitañteko bage dagozanen alde zer-edo-zer, zuzentasuna euren alde dago-ta, egingo bazeuke, bada-kixu zeuk Jaungoikuak ugari sarituko leukezula osetan edo zerubetan eta gure añenak zeure alde betiko ixango dozuzala, niriak baña ta nire meza-gomutak antxiñagotik ta egunian egunian dozuz baña, Auxe da arazua, ta iñoren bitañtektotasun-bage nire anaya daguala, neu natof zeugana, neurez, iñok zirikatubarik, lenago zeuk Sotataf jaunagaz aűtu-emonak daukazuzala jakin nebalako bakañik. Samuel anaya, elantxobetafa, gauf Txoriefin dago gurasuakaz: bere itxasorate osuan gustijon naimena ta goraldijak irabazi dauz: eztautsa iñok egundo bidebagakorik lepora ezafi.

Orain eduba dot-eta, itaune bi egingo dautsudaz: *Euskalzale* bixi zan azkenngo urtian Iztegija agind'u zeban: astija ta eretija zeure lana amat'u ta mol-datuteko ixan badozu, edo aűgit'aratu badozu, jakin gurako neuke, iztegi ona biañtsu biañtsuba dot-eta.

Gero, aspaldiko opof-egunetan *Amaya* eñderazko irakuűgaya euskeratutuari ekin neutsan: zer-edo-zer egin dot; oindiño baña eztot amat'u, ta ofniduteko asti lu-ziağotxuba biañ dot. Bat'a bere biañ ixango neukez euskeraz ikusi Anibalen kantua eta Altabizkafkua: goyak eta beyak jo dodaz, baña orañarte eztauste atetan erantzun: zeuk euren bafija ixango dozu-ta, nori eskatu, edo zelan jaritxiko

neukezan erezi zaf bijok esango badaustazu, nire eskaf ona lotuta ixango dozu.

Parkatu, abade jauna, eskutitz onezaz efne dautsudan ondo-eza: aftu egixuz gustijagatik aufetijaz egiten dautsudazan eskafak, eta agindu egijozu zeure otsein ta meza-esale

Arriandiaga-taf Emanuel, ab-ri,
M. B. S.

[9] Segovia'tik 1916'gko. epal'a-23'gn.
Azkue'taf R. M.'ri, Bilbao'n.

Aguí, aizkide on mat'e:

Zeuria aftu neban, bai eta Iztegi-inguftija be, eskafik asko.

«Bereteí» itza prêtre'tik etofi yakula deritzat: «beretef=pereter», peremin, premin, pake, bake; barkatu, parkatu, ta abaf lez. Van Eysén iztegijan eztago itz ori; ta bere aburuba ezin jakin. «Atxeter»'en antza dauka, amaijez; baña au be eztaikit nundik datoíen: eztaikit eskijeíto-eskijeíto euzkerazkua dan ala erderatikua.

Beira vidrio'ren ordez darabiltza; ta *beira*-tik *beilasko*. abalorio: oin enaz gomuta nun ezta noiz *beira* erderatikua dala irakuí nebala: Van Eys'en Iztegi-an itz au be eztaikut. Nire ustez *leyo* eta *leyotila*'n dago euzkerazko efai egija, cristal ta vidrio'rentzako: nik aspaldin *leyaf* ot'u duruat cristale'n ordez: *af* ori *legaf* eta askotan bai-dakixu dagola.

Bein-edo-bein itzen irabiamenak euzkeraz iminten dozuz, erderazko atzalben-aldamenian; baña ordeitzik ez, eta al litxakelarik, bigafen au nayago geuke euzkel-itza-bila iztegiara guazanok: esate baterako: Abrojo; 2.º, 3.º: nik bigafenan, atzalben-aldamenian *ilaun-gardu* niminke; eta irugafenan, *azal-aitz*, ala *iz-azal-aitz*: au ezta itz bafijak eraltzia, itz-alkaftubetaz laburkiro atzalbena adiraztia baño; ta iñork, biazekero, *il'aungardu*, ala *azal-aitz* laburto ot'uko leikiez.

Ez ete-litzake obeto *tresna*, *kristau* ta onetariko abotsen onduan *tesna*, *kis-tau* idaztea, aboskereari zoí yakana aintzat aftubaz? Gustijok dakigu *f* eztaala euzkeraz bidezkuak: *br*, *bl*, *tr*, *kr*, eta eztirala bidezkuak.

Besterik ez gauíkuak: uafíxu oneik be zeure aburupian gustiz.

Auferá: bai-dakixu oba dala maratz eta ondo arin eta txarío baño.

Euzkeraren aldez,

Afiandiaga'taf Imanol, M. B. S.